Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

840

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 25ekoa, Ingurumenekosailburuordearena, Arkema Química SA enpresari ingurumen-baimen bateratua emateko dena, Alonsotegiko (Bizkaia) udalerrian, urak berritzeko hidrokarburo halogenatuak eta malutatzaileak fabrikatzeko jarduerara burutu dezan.

AURREKARIAK

2006ko azaroaren 27an, Arkema Química SA enpresak (Alonsotegiko fabrika) Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Alonsotegiko (Bizkaia) udalerrian urak berritzeko hidrokarburo halogenatuak eta malutatzaileak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen:

– Oinarrizko proiektua (2006ko azaroa).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko azaroa).

Erreferentzia-baimena eskatzeko orduan, Arkema Química SA enpresak (Alonsotegiko fabrika), besteak beste, jarduera-baimenak zituen, 1991ko martxoaren 14koa, 1995eko urtarrilaren 12koa eta 2001eko apirilaren 18koa. Aipatutako baimenak produktu kimikoak egiteko, CFCak HFC bihurtzeko eta Forane-32 fabrikatzeko eman ziren. Era berean, enpresa sustatzaileak honako baimen hauek zituen: atmosfera kutsa dezakeen jarduera garatzeko baimena, 1998ko ekainaren 9koa, kolektorera isurketak egiteko baimena, 2005eko martxoaren 30ekoa; industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroan izena eman zuen 1986ko otsailaren 16an; eta hondakinen eta uren arloan indarrean dagoen araudiak ondoren ezarritako zabaltzeak eta berrikuntzak egin dira.

Beranduago, 2007ko urtarrilaren 31n, xede dugun proiektuaren eta Alonsotegiko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko udal txostena bidali zen.

2006ko abenduaren 5ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

840

RESOLUCIÓN de 25 de abril de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de fabricación de hidrocarburos halogenados y floculantes para clarificación de aguas, promovida por Arkema Química, S.A. en el término municipal de Alonsotegi (Bizkaia).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 27 de noviembre de 2006 Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi), solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para su actividad de fabricación de hidrocarburos halogenados y floculantes para clarificación de aguas en el municipio de Alonsotegi (Bizkaia). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto básico (noviembre 2006).

– Resumen no técnico (noviembre 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi), tenía, entre otras, licencias de actividad de fechas 14 de marzo de 1991, 12 de enero de 1995 y 18 de abril de 2001. Las citadas licencias se concedieron para Elaboración de productos químicos, Reconversión de CFCs en HFCs y para fabricación de Forane-32. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de actividad potencialmente contaminadora de la atmósfera de fecha 9 de junio de 1998, autorización de Vertido a Colector, de 30 de marzo de 2005, de Productor de Residuos Peligrosos de 14 de marzo de 2001, inscripción en el registro de productor de residuos industriales inertes, de 16 de febrero de 1986 y posteriores ampliaciones y renovaciones, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de residuos y aguas.

Posteriormente se remite informe municipal relativo a la compatibilidad del proyecto con el planeamiento urbanístico de Alonsotegi, con fecha 31 de enero de 2007.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 5 de diciembre de 2006 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que, por el órgano ambiental, se acuerde el trámite

azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Alonsotegiko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari kontsultatu zien.

Produktu fluordunak biltegiratzeko bi andel gehitu dira instalazioetan. 2007ko urtarrilaren 11n Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak, autonomia-erkidegoan eskumena duen organoa den neurrian, instalazioetan egindako aldaketa «aldaketa ez-funtsezkotzat» jo zuen, 16/2002 Legearen 10. artikulua betez.

Ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2007ko martxoaren 1ean; espedientea 2007ko abuztuaren 10ean osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Arkema Química SA enpresak (Alonsotegiko fabrika) sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Alonsotegiko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko otsailaren 11n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Arkema Química SAenpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen proposamena gehituz.

2008ko otsailaren 27an, sustatzailearen komunikazio bat jaso zen, eta ingurumeneko baimen bateratuaren ebazpen-proposamenari buruzko gogoeta batzuk egiten ziren bertan.

de información pública del proyecto, concretamente los organismos consultados son el Ayuntamiento de Alonsotegi, el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y el Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia.

Con motivo de la ampliación de sus instalaciones de producción con dos tanques de almacenamiento de productos fluorados, a fecha de 11 de enero de 2007 la Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, en calidad de órgano competente de la Comunidad Autónoma, consideró que la modificación de las instalaciones debía tener a consideración de «modificación no sustancial» de acuerdo con el artículo 10 de la Ley 16/2002.

Con fecha 1 de marzo de 2007, el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 10 de agosto de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi) en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Bizkaia, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 2 de diciembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública, se constata que no se ha presentado alegación alguna.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2008 informe al Ayuntamiento de Alonsotegi y a los Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 11 de febrero de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Arkema Química, S.A. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El día 27 de febrero de 2008 se recibe comunicación del promotor en el que se formulan diversas consideraciones en relación con la propuesta de resolución de Autorización Ambiental Integrada.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Arkema Química SAenpresaren kasuan (Alonsotegiko fabrika), baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi) tales autorizaciones se circunscriben a la de producción de residuos peligrosos y no peligrosos, vertido a la red general de saneamiento, y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal.

Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Arkema Química SA enpresari (Alonsotegiko fabrika) dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Alonsotegiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da teknika erabilgarri onenen erabilera. Hain zuzen ere, kontuan hartu dira Europako Batzordearen «Reference Document on Best Available Techniques in the Large Volume Organic Chemicals» BREF agiriaren edukia eta «Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volume Inorganic Chemicals-Solid and Others» BREF agiriaren edukia, 2003ko otsailean eta 2007ko abuztuan aurkeztutako agiriak, hurrenez hurren.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen proposamena sinatu eta Arkema Química SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzeko.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko urtarrilaren 17an

A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi) ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Alonsotegi y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma, a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta el uso de las mejores técnicas disponibles. En particular se ha considerado el contenido de los documentos BREF de «Reference Document on Best Available Techniques in the Large Volume Organic Chemicals» y «Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volume Inorganic Chemicals-Solid and Others», de fecha febrero de 2003 y de agosto de 2007, respectivamente, ambos de la Comisión Europea.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Arkema Química, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación. En este sentido, debe tenerse en cuenta que por los servicios técnicos adscritos a este órgano se ha procedido al análisis de las consideraciones realizadas por el promotor en este trámite, habiéndose tenido en cuenta las mismas en la elaboración de la presente Resolución.

Considerando la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 17 de enero de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y

emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Madrilgo udalerriko Avda. Burgos etorbideko 12ko, 7.ean duen eta IFK: A-28381473 zenbakia duen Arkema Química SAenpresari (Alonsotegiko fabrika) Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Alonsotegiko udalerrian urak berritzeko hidrokarburo halogenatuak eta malutatzaileak fabrikatzeko jarduera garatzeko, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 4.1.f kategorian, «Hidrokarburo halogenatuen fabrikazioa» eta 4.2.d kategorian «Gatzen fabrikazioa».

Fabrika 36.500 m² dituen azalera batean dago kokatuta. Azalera horretatik 23.202 m² azalera eraikia dira.

Alonsotegiko Arkema Química SA fabrikan urak berritzeko hidrokarburo halogenatuak (Forane izenarekin ezagutzen direnak) eta malutatzaileak (aluminiozko oinarrizko polikloroSulfatoa eta aluminiozko oinarrizko polikloruroa) egiten dira. Hidrokarburo halogenatuak fabrikatzean azpiproduktu bat sortzen da: azido klorhidrikoa da (HCL) eta % 33ko kontzentrazioa du. Fabrikan bi ekoizpen-eremu bereiz daitezke. Eremu horietan produktu desberdinak egiten dira. Fabrikaren urteko ekoizpen-gaitasuna 119 t/eguneko da hidrokarburo halogenatuen fabrikazio-lerrorako, eta 414 t/eguneko malutatzaileen fabrikazio-lerrorako.

Malutatzaileak egiteko lehengai gisa HCl (% 33), H_2SO_4 eta $Al(OH)_3$ erabiltzen dira. Erreakzioa egin eta gero, erreaktorea hustu egiten da eta lortutako produktua iragazte-prozesu batetik igarotzen da.

Foraneak fabrikatzeko lehengaiak HF, Cl_2, katalizatzaileak eta disolbatzaile kloroduna dira. Erreakzioa

Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi), con domicilio social en la Avda. Burgos, 12, 7.º del término municipal de Madrid y CIF: A-28381473, Autorización Ambiental Integrada para la fabricación de hidrocarburos halogenados y floculantes para clarificación de aguas, en el término municipal de Alonsotegi, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo.– de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 4.1.f «Fabricación de hidrocarburos halogenados» y 4.2.d «Fabricación de sales» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La planta se encuentra ubicada en una superficie de 36.500 m², de los cuales 23.202 m² están edificados.

La planta de Arkema Química, S.A. en Alonsotegi, se dedica a la fabricación de de hidrocarburos halogenados (comercialmente llamados foranes) y floculantes para clarificación de aguas (policlorosulfato básico de aluminio, y policloruro básico de aluminio). Como subproducto de la fabricación de los hidrocarburos halogenados, también se produce ácido clorhídrico (HCl) en una concentración del 33%. En la planta se pueden distinguir dos zonas de producción, donde se llevan a cabo los procesos de fabricación de los diferentes productos. La capacidad de producción anual de la planta es de 119 t/día, para la línea de fabricación de hidrocarburos halogenados y 414 t/día, para la línea de fabricación de floculantes.

Las materias primas utilizadas para la fabricación de productos floculantes son HCl al 33%, H_2SO_4 y $Al(OH)_3$. Tras la reacción, se procede al vaciado del reactor, haciendo pasar el producto resultante por un proceso de filtración.

Para la fabricación de foranes, las materias primas utilizadas son HF, Cl_2, catalizadores y solvente clora-

egin ondoren, osatutako HCl bereizi behar da, destilazio bidez. Jarraian, produktua garbitu, NaOH bidez neutralizatu, lehortu eta destilatu egiten da alde batetik, eta, bestetik, HCl xurgatze adiabatikoa egiten da. Azken eragiketa horretan ateratzen da HCla (% 33ko kontzentrazioarekin), eta instalazioan bertan autokudeatzen da, ekoizpen-prozesuan lehengai gisa erabiliz.

Instalazioetan ekoizpen-prozesu osoan eta suteen kontrako defentsa-sisteman erabiltzen den ura Amalia meatzetik hartzen da (Aguas Frías errekastoa), eta urtean 149.000 m^3 inguru kontsumitzen dira. Zerbitzu sanitarioetan kontsumitzen den ura, berriz, udal saretik hartzen da eta urteko kontsumoa 3.300 m^3 da.

Honako baliabide energetiko hauek erabiltzen dira: elektrizitatea, instalazioko zerbitzu orokorretarako eta ekoizpen-prozesuak garatzeko (urteko kontsumoa: 9.600 MWh inguru); gas naturala foraneak eta malutatzaileak fabrikatzeko (urteko kontsumoa: 2.000.000 Nm^3 inguru); eta gasolioa multzo elektrogenoa hornitzeko, suteen kontrako ponparako eta orgetarako (urteko kontsumoa: 8.300 litro). Instalazioak 2.731 Kw-ko potentzia du instalatuta eta 1.600 Kw-koa da potentzia kontratatua.

Instalazioan atmosferara isurketak egiten dituzten 5 foku sistematiko daude: HCL/Cl_2 ikuzteko zutabearen fokua, HF ikuzteko zutabearena, HCL ikuzteko zutabearena, 1. lurrun-galdararena eta 2. lurrun-galdararena. Aipatutako fokuek arazketa-sistema desberdinak erabiltzen dituzte: HCL/Cl_2 xurgatzeko zutabe, HF xurgatzeko zutabea eta HCl xurgatzeko sistema. Adierazitakoaz gain, isurtze barreiatuak egiten dira, andelak haizeatzean eta ontziratzeko instalazioetan.

Honakoak enpresan sortzen diren efluenteak: foraneak eta malutatzaileak fabrikatzeko prozesuan sortutako industria-urak, isuriak eta kubeta eta zamalanetarako eremuetako efluente likidoak, bulegoetako ur sanitarioak, lantegiko ur sanitarioak, kutsadurarik eragiten ez duten euri-urak, ekoizpen-eremuetako kubetetan gordetako euri-ur kutsatuak eta zamalanen kutxeta-sistemako urak.

Industria-urak eta euri-ur kutsatuak instalazioko araztegira (tratamendu fisiko-kimikoa egiteko instalaziora) eramaten dira eta, ondoren, kolektorera zuzendutako isurketa-puntu batera. Bulegoetako ur sanitarioak kolektorera konektatutako beste isurketa-puntu batera zuzentzen dira; lantegitik datozen uren kasuan beste isurketa-puntu bat erabiltzen da kolektorera isurtzeko. Bestalde, kutsatu gabe dauden euri-urak Kadagoa ibaira isurtzen dira zuzenean, lau isurketa-punturen bitartez.

do. Después de la reacción, se lleva a cabo la separación del HCl formado, mediante destilación. Posteriormente, por un parte se lleva a cabo el lavado, neutralización con NaOH, secado y destilación del producto, y por otra, una absorción adiabática del HCl, de la que se extrae HCl al 33% que se autogestiona en la propia instalación utilizándose como materia prima dentro del proceso productivo.

El agua utilizada en las instalaciones para todo el proceso productivo y para el sistema de defensa contra incendios procede, en su totalidad de la mina Amalia (arroyo Aguas Frías), con un consumo anual aproximado de 149.000 m^3, mientras que el agua consumida en los servicios sanitarios procede de la red municipal, con un consumo anual de 3.300 m^3.

Los recursos energéticos utilizados son: electricidad, para los servicios generales de la planta y el desarrollo de los procesos productivos (consumo anual aproximado de 9.600 MWh), gas natural para la fabricación de foranes y floculantes (consumo anual aproximado de 2.000.000 Nm^3) y gasóleo para suministro al grupo electrógeno, bomba contra incendios y carretillas (consumo anual aproximado de 8.300 litros). La potencia instalada de la planta es de 2.731 Kw, mientras que la contratada es de 1.600 kw.

En las instalaciones existen 5 focos sistemáticos de emisión a la atmósfera correspondientes a la columna de lavado de HCl/Cl_2, columna de lavado HF, columna de lavado HCl, caldera de vapor 1, y caldera de vapor 2. Éstos focos disponen de diferentes sistemas de depuración: columna de absorción de HCl/Cl_2, columna de absorción de HF y sistema de absorción de HCl. Además se generan emisiones difusas, asociadas al venteo de los tanques e instalaciones de envasado.

Los efluentes generados en la empresa son aguas de origen industrial generadas en los procesos de fabricación de foranes y floculantes, derrames y efluentes líquidos de cubetos y zonas de descarga, aguas sanitarias procedentes de oficinas, aguas sanitarias procedentes del taller, aguas pluviales no susceptibles de aportar contaminación y aguas pluviales contaminadas retenidas en los cubetos de las zonas de producción y las que fluyen por el sistema de arquetas de carga y descarga.

Las aguas de origen industrial y las aguas pluviales contaminadas, se dirigen a la estación depuradora de tratamiento físico-químico de la planta dirigiéndose, tras su salida, a un punto de vertido a colector. Las aguas sanitarias procedentes de las oficinas se dirigen a un segundo punto de vertido a colector, mientras que las procedentes del taller se vierten a colector a través de un tercer punto de vertido. Por su parte, las aguas pluviales desprovistas de contaminación se vierten directamente al río Cadagua a través de cuatro puntos de vertido.

Instalazioan sortzen diren hondakin arriskutsu nagusiak, hidrokarburo halogenatuak eta malutatzaileak fabrikatzeko prozesuan, gasak ikuzteko prozesuan eta zerbitzu orokorretan sortzen dira. Hondakin arriskutsu horiek dira: azido klorhidrikoa % 33ra eta hondakin-alumina % 5era, nahaste alkalinoa, hozgarria duten urak, garbiketa-ur azidoak eta neutralizatzeko putzuko lohiak; eta instalazioan sortzen diren hondakin ez-arriskutsu nagusiak dira: iragazte-lohiak, hiri-hondakinak eta II. motako hondakin geldoak (Rasching eraztunak).

Foraneak ekoizteko prozesuari buruzko «Reference Document on Best Available Techniques in the Large Volume Organic Chemicals» agiriaren eta malutatzaileak egiteko prozesuari buruzko «Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volume Inorganic Chemicals-Solid and Others» agiriaren arabera, Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) jarraitzen dituzten instalazioak eta ekipoak barne hartzen dira proiektuan. Instalazioan ezarritako neurrien artean, honakoak aipa daitezke: erreakzioaren selektibitate altua, gasak xurgatzeko dorreen erabilera, blow-down andel bat, segurtasun-balbulen desarrak jaso eta atmosferara isurtzen diren gasak minimizatzeko, katalizatzailearen birsorkuntza, prozesuko uren kutsadura lehengaiekin minimizatzea, malutatzaileak fabrikatzeko scrubber bat edukitzea, bero-trukagailuen erabilera, hozte-sistema itxia, hozteuretan toxikoak ez diren gehigarriak edo toxikotasun baxuko gehigarriak erabiltzea, kubetetan biltegiratzea eta sare bereizgailua.

Bigarrena.– Arkema Química SA enpresak Alonsotegiko udalerrian sustatutako urak berritzeko hidrokarburo halogenatuak eta malutatzaileak egiteko jarduera ustiatzeko, ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Arkema Química SA enpresak (Alonsotegiko fabrika) aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Arkema Química SA enpresaren instalazioa (Alonsotegiko fabrika) ustiatzean atmosferara egingo diren

Los principales residuos peligrosos generados provienen de los procesos de fabricación de hidrocarburos halogenados, floculantes, lavados de gases y servicios generales y corresponden con soluciones de ácido clorhídrico al 33% y al 5%, alúmina residual, mezcla alcalina, aguas con refrigerante, aguas ácidas de limpieza y lodos de la fosa de neutralización, mientras que los principales residuos no peligrosos generados en la planta se corresponden con los lodos de filtración, los residuos urbanos y los residuos inertes de tipo II (anillos Raschig).

El proyecto incorpora instalaciones y equipos que se consideran Mejores Técnicas Disponibles (MTDs), de acuerdo con los documentos de referencia de aplicación a la instalación, «Reference Document on Best Available Techniques in the Large Volume Organic Chemicals» para el proceso de producción de foranes y «Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volume Inorganic Chemicals-Solid and Others», para el proceso de fabricación de floculantes. Entre las medidas implantadas en la planta se encuentran la alta selectividad de la reacción el uso de torres de absorción de gases, así como un tanque blow-down de recogida de disparos de válvulas de seguridad para la minimización de los gases a la atmósfera, la regeneración del catalizador, la minimización de la contaminación del agua de proceso con materias primas, la disposición de un scrubber en la fabricación de floculantes, el uso de intercambiadores de calor, sistema de refrigeración cerrado, uso de aditivos poco o nada tóxicos en el agua de refrigeración, almacenamiento en cubetos y red separativa.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la fabricación de hidrocarburos halogenados y floculantes para clarificación de aguas, promovido por Arkema Química, S.A. en el término municipal de Alonsotegi:

A) Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi) remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al titulado superior responsable de las relaciones con la Administración.

B) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

B.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

B.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.1.1.1.– Condiciones generales.

Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi), explotará la actividad de modo que, en las emisiones a

isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Arkema Química SA instalazioak (Alonsotegiko fabrika) ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta.

la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión, establecidos en esta Resolución.

Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones. Podrán exceptuarse de esta norma general aquellas emisiones no confinadas cuya captación sea técnica y o económicamente inviable y/o bien cuando se demuestre la escasa incidencia de las mismas en el medio.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

B.1.1.2.– Identificación de los focos. Catalogación.

La instalación de Arkema Química, S.A. (fábrica de Alonsotegi) cuenta con los siguientes focos, catalogados de acuerdo la normativa vigente en materia de protección de la atmósfera

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa		UTM koordenatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	48001391- 01	HCl/Cl_2 ikuzketa-Zutabea (Foraneen planta)	12	0,4	A	1.6.3.	498651	4786896
2	48001391-02	HF ikuzketa-zutabea	3	0,1	A	1.6.3.	498685	4786873
3	48001391- 03	HCl ikuzketa-zutabea (Malutatzaileen planta)	5,7	0,3	A	1.6.3.	498654	4786859
4	48001391- 04	1. lurrun-galdara (Vulcano)	14,8	0,63	C	3.1.1.	498631	4786945
5	48001391- 05	2. lurrun-galdara (Steambloc)	9,695	0,56	C	3.1.1.	498631	4786945

N.º foco	*Código del foco*	*Denominación foco de emisión*	*Altura (m)*	*Diámetro (m)*	*Catalogación*		*Coordenadas UTM*	
					Grupo	*Epígrafe*	*X*	*Y*
1	*48001391- 01*	*Columna de lavado HCl/Cl_2 (Planta Foranes)*	*12*	*0,4*	*A*	*1.6.3.*	*498651*	*4786896*
2	*48001391-02*	*Columna de lavado HF*	*3*	*0,1*	*A*	*1.6.3.*	*498685*	*4786873*
3	*48001391- 03*	*Columna de lavado HCl (Planta Floculantes)*	*5,7*	*0,3*	*A*	*1.6.3.*	*498654*	*4786859*
4	*48001391- 04*	*Caldera de vapor 1 (Vulcano)*	*14,8*	*0,63*	*C*	*3.1.1.*	*498631*	*4786945*
5	*48001391- 05*	*Caldera de vapor 2 (Steambloc)*	*9,695*	*0,56*	*C*	*3.1.1.*	*498631*	*4786945*

Adierazitakoaz gain, isurtze barreiatuak egiten dira, andelak haizeatzean eta ontziratzeko instalazioetan.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditu ko:

Además, se generan emisiones difusas, asociadas al venteo de los tanques e instalaciones de envasado.

B.1.1.3.– Valores límite de emisión.

La planta se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los siguientes valores límite de emisión:

Fokua (k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. HCl/Cl_2 ikuzketa-zutabea (Foraneak)	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Kloroa (Cl_2)	5,0 mg/Nm^3
2. HF ikuzketa-zutabea	Azido fluorhidrikoa (HF)	5,0 mg/Nm^3
3. HCl ikuzketa-zutabea (Malutatzaileak)	Azido klorhidrikoa (HCl)	* 30mg/Nm^3
4. 1. lurrun-galdara (Vulcano)	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
5. 2. lurrun-galdara (Steamblock)	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm

(*) Fluxua > 300 g/h denean.

Foco(s)	*Sustancias*	*Valores límite emisión*
1. Columna de lavado HCl/Cl_2 (Foranes)	*Ácido clorhídrico (HCl)*	*30 mg /Nm^3*
	Cloro (Cl_2)	*5,0 mg /Nm^3*
2. Columna de lavado HF	*Ácido Fluorhídrico (HF)*	*5,0 mg /Nm^3*
3. Columna de lavado HCl (Floculantes)	*Ácido clorhídrico (HCl)*	**30mg/Nm^3*
4. Caldera de vapor 1 (Vulcano)	*Óxidos de nitrógeno (NO_x)*	*300 ppm*
	Monóxido de carbono (CO)	*500 ppm*
5. Caldera de vapor 2 (Steamblock)	*Óxidos de nitrógeno (NO_x)*	*300 ppm*
	Monóxido de carbono (CO)	*500 ppm*

(*)Si flujo > 300 g/h.

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu ko arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu z gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Los valores límite de emisión están referidos a las siguientes condiciones: 273 K de temperatura y 101,3 kPa de presión y gas seco.

Los parámetros medidos no superarán los valores límite de emisión en inspecciones periódicas reglamentarias (tres medidas de una hora cada una, como mínimo) medidos a lo largo de ocho horas. Se admitirá como tolerancia de medición que estos límites puedan superarse en el 25% de los casos en una cuantía que no exceda del 40%. De rebasarse esta tolerancia, el periodo de mediciones se prolongará durante una semana, admitiéndose, como tolerancia global de este periodo, que puedan superarse los niveles máximos admisibles en el 6% de los casos en una cuantía que no exceda el 25%. Estas tolerancias se entienden sin perjuicio de que en ningún momento los niveles de inmisión en la zona de influencia del foco emisor superen los valores higiénicamente admisibles.

B.1.1.4.– Sistemas de captación y evacuación de gases.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2. atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

Hala eta guztiz ere, L1 ≥ 8D y L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez direnean, eta kontuan hartuta ez direla onartzen L1 < 2D Y L2 < 0,5D balioak, neurketen txostenean laginketa-planoaren egokitasuna justifikatu beharko da.

Isurtze barreiatuak kontrolatzeko helburuarekin, instalazioko Cl_2 eta HF kaptadore perimetralen sareak behar den bezala funtzionatzen duela ziurtatuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

